


Seguru monogamoak garela?



Sexualitatea

Sex at Dawn: The Prehistoric Origins of Modern Sexuality

Christopher Ryan,
Cacilda Jethá

Harper, 2010

CHRISTOPHER RYAN (AEB) eta Cacilda Jethá (Mozambique) liburuaren egileek gaur egun gizakiaren sexualitateaz nagusi den diskurtsoa hankaz gora botatzen dute. Haien ustez, mendez mende, agintari erlijiosoen sexualitatearen jatorria eta izaera isildu dute, medikuek patologizatu, zientzialariek nahita bazter utzi, eta terapeuta moralizazioak lurperatu.

Ezkontza tradizionala, monogamia, familia nuklearra eta maitasuna-sexua lotura erdigunean egoitea zalantzan jartzen dute. Haien ustez, ukazina da gizakiak sexu grina duela, eta aldiz, gaur egun erotismoari gerra deklaratu diogula diote, biologiari eta milioika urtetako grinaren eboluzioari muzin eginez.

Haien teoria defendatzeko gaur egungo giza talde batzuen ereduak azaltzen dituzte, baita hainbat primaten sexu portaerak ere. Gaur gaurko gaiez ari dira, eta umore ederrez gainera.

Ryan eta Jethá-ren liburuak *Sex at Dawn: The Prehistoric Origins of Modern Sexuality* du izenburu. Gaztelaniaz aurki daiteke: *En el principio era el sexo. Los orígenes de la sexualidad moderna. Cómo nos emparejamos y por qué nos separamos* (Paidós transiciones, 2012). Ez dute frantsesera itzuli, ezta euskarara ere, noski. ■

Onintza Irureta Azkune

Komunikazioa ere politika da

KONTZIENTZIAK ASTIN DITZAKE ekintza komunikatibo batek, hartzailearen eskemak hausteko gai bada. Diskurtso orokortua pitzatzea da gakoa, elementu berriak sartzea. *Como acabar con el mal* liburu oso baliagarria da gerrilla komunikazioa interesatzen zaion edonorentzat.

Politika egiteko modu berri eta berritzaileei buruzko gogoeta da. Politika egiteko modu subertsibo zuzenak, azalpen teorikoak, aukerak eta mugak besteren artean. Azken hamarkadetan egindako dozenaka ekintza jasotzen ditu Bartzelonan argitaratutako liburu honek; hainbat Euskal Herrikoak, dispersioaren aurkako Giralduak edo intsumisioek erabilitako teknikak kasu.

“Nola da posible gure jendarteko herritarrek horrenbesteko naturaltasunarekin onartzea egungo botere harremanak? Zergatik bizi dugu hau dena gauza normala balitz bezala, eta orokorrean, zergatik ez ditugu zalantzan jartzen? Nola sortu interferentziak eta nahasketak boterearen inguruan dagoen kontsentsu sozialean?”, galdetzen dute aurkezpen gisa. “Politika ezkertiarra egiteko moduen zabalkunde ekarpena egin nahi genuke”, diote.

Boterea, kultura, subertsioa eta irudimena ardatz, herri mugimendu subertsiboaren adibidez josia dago: Marcos komandanteordeetik hasi, Bartzelonako udalarean okupazioaren bandera jarri zutenekoa, Alemanian pilak egiten dituen enpresaren ustelkeria salatze-

ko ekintzak; McDonalds, Benetton, Shell, Coca Cola eta beste multinazional askoren aurkakoak; oso ezagunak izan

ez arren, oso inspiragarriak gerta daitezkeen gatazka txikitako garaipen txikiak...

Luther Blisset, A.F.R.I.K.A. talde autonomoa eta Sonja Brünzels-en izenean sinatuta dago, eta interesa duenak izen hauen atzean ekintzaile irudimentsuen historia topatuko du. Nabarmentzekoa da erabili duten formatu berezia, orri bakoitza hiru heren horizontaletan banatuta idatzi baitute, letra tipo ezberdinekin berezita goiko, erdiko eta beheko parteak. Puntuz puntu goian teoria, erdian azalpen eta gogoetak, eta behean praktikak azaltzen doaz. Ongi pentsatuta dago formatua.

Gerrilla komunikazioaren manuala. Min lokal eta orokorren tratamendurako kontsulta praktikoa. Nola amaitu gaitzakiarekin, da liburuaren izenburu osoa. Eskuratzen zaila den liburu horietako bat da, baina sarean PDFan aurki daiteke <http://ttiki.com/340788> helbidean. ■

Subertsioa

Cómo acabar con el mal
Hainbat egile.

Virus, 2000



Lander Arbelaitz